



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

► Hirigintza Sostengagarria  
Urbanismo Sostenible

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943483838 | www.donostia.eus  
20003 Donostia / San Sebastián

## UDAL PLANEAMENDUKO AHOLKU KONTSEILUAREN BATZORDE IRAUNKORRAK EGINDAKO BILERAREN AKTA

---

Data: 2017ko azaroaren 29a

Tokia: Donostiako Udaletxeko Tokiko Gobernu Batzarraren aretoa.

### **Bileran izan direnak.**

- **Batzordeburua:** Enrique Ramos Vispo jauna, Hirigintza Sostengagarriko, Etxebizitzako eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkaria.

- **Batzordekideak:**

- Alfonso Gurpegui Ruíz jauna, zinegotzia, PSE-EE udal taldearen ordezkari gisa.
- Amaia Almirall López de Luzurriaga andrea, EH Bildu udal taldearen ordezkari gisa.
- José María Murguiondo Casal jauna, PP udal taldearen ordezkari gisa.
- Martín Ibabe Eceiza jauna, EAJ udal taldearen ordezkari gisa.
- Iñaki Gurrutxaga Armendariz jauna, EAJ udal taldearen ordezkari gisa.
- Loïc Alejandro jauna, Irabazi Ganar Donostia udal taldearen ordezkari gisa.
- Elizabete Azpillaga Ruiz andrea, Ingurumen Elkartearen ordezkari gisa (Haritzalde Naturazaleen Elkartearen).
- Leopoldo Sánchez Taberner jauna, Lantxabe auzo elkartearen ordezkari gisa.
- Ray Mendiburu Abad jauna, Parte Zaharra auzo elkartearen ordezkari gisa.
- Izaskun Aseginolaza Braga andrea, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren ordezkari gisa.
- Juan Carlos Cuevas Argandoña jauna, Hirigintzako zuzendaria.
- Rafael Farias Blanc jauna, Donostiako Etxegintza enpresa erakunde publikoaren kudeatzailea.

10740n XVII

**Idazkaria:** Carlos Azcoaga Mendizabal jauna, Udaleko idazkari nagusiak eskuordea emanda.



Arratsaldeko lauretan (16:00etan) hasi da Udal Planeamenduko Aholku Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren bilera, aztergai zerrenda honi eta egindako deialdiari jarraituz.

### **1. Garbera IN.09 hirigintza esparruari buruzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aldaketaren txostena.**

Hirigintza Sostengagarriko, Etxebizitzako eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkari Ramos jaunak hartu du hitza, azaltzeko zertan datzan Gabera IN.09 hirigintza esparruari buruzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko proposamena; hain zuzen, esan du aparkalekuetarako merkataritza gunea sestrapean 25.000 m<sup>2</sup>(t) eta 71.490 m<sup>2</sup> (t) aurreikuspen eraikigarritasuna handitzean datzala.

Gaineratu du behin-behinean onar dezala eskatuko diola Udalbatzari.

Ray Mendiburuk hartu du hitza gero, eta esan du proposatutako aldaketak ez direla txikiak, nahiz eta txikiak direla jasota dagoen alegazioak direla-eta igorritako txostenean, baizik eta handiak.

Bere ustez, Garbera merkataritza gunek inguruko auzoetako saltoki txikien enpleguan zer ondorio eragin dituen jakiteko azterketa bat egin behar da.

Adierazi du, halaber, arazoa eragin dezakeela biribilguneko eta, ondorioz, Intxaurren auzoko zirkulazioan; euri uren emariak gora egitea ere eragin dezakeela esan du, eta horrek Herreran eragina izan dezakeela.

Leopoldo Sánchezek esan du saltoki txikiekiko eraginari buruzko iritzi kontrajarria duela, Mendiburu jaunak adierazitakoaren bestelakoa. Bere ustez, gizarteak mota horretako merkataritza gunek nahi ditu.

Amaia Almiralrek Aholku Kontseiluak egindako deialdiaren formari buruzko arazo bat adierazi du. Hain zuzen, esan du ez duela bete Udal Araudiko 5.4 artikulua xedatutakoa; izan ere, txostenak, arau horrek xedatutakoaren arabera, hasieran onartutako dokumentua jendaurrean jartzeko epean igorri behar dira, eta kasu honetan, epe hori igaro da.



Horren harira, Izaskun Aseguinolazak esan du konponbide egokia litzatekeela Aholku Kontseiluak bi deialdi egitea, bata plana hasieran onartu baino lehen, eta bestea behin-behinean edo hasieran onartu ondoren. Hala, proposatutako gaiekiko eragin handiagoa lortuko litzatekeelako.

Ezbaian jarri du sestrapean 70.000 m<sup>2</sup> (s) baino gehiagoko aparkaleku baten beharra, bai eragingo duen inpaktu fisikoarengatik, bai etorkizunean beharbada beharrezkoa ez delako izango, ibilgailuen kopuruak behera egiten duenean edo ibilgailuak desagertzen direnean.

Horrezaz gain, adierazi du jariatzeak gora egitea eragin dezakeela.

Juan Carlos Cuevasek hartu du hitza, eta esan du azalera egun asfaltatuta dagoela, eta ez dela aurreikusten gora egitea. Edonola ere, Hirigintzako ingeniariak igorritako txostenean hala jasota dagoela esan du, eta txostena administrazio espedientean dagoela.

Elizabete Azpillagak honako hauek adierazi ditu, besteak beste:

- Ez dagoela justifikatuta espediente honetan proposatutako hirugarren sektoreko azalera handitzea.
- Kalteak eragingo dizkiola inguruko merkataritzari.
- Proiektu honek kalteak eragingo dituela ingurumenean, berekin dakarrelako ibilgailua gehiago erabiltzea, eta horrek ez dituela betetzen Udalak gai horri buruz bere gain hartutako konpromisoak.
- Inguruko merkataritza bultzatu behar dela, eta plan honek sustatzen duen eredia baztertu.

Loïc Alejandrok adierazi du eragingo duen auto ilaren arazoaz gain eta bilera honetan jada adierazitako beste arazo batzuez gain, zalantzan jartzen duela Garbera handitze hori denen intereserako den.

Bereziki adierazi du koherentea ez dela klima aldaketaren aurkako borroka egitea eta ibilgailua erabiltzea sustatuko duen azpiegitura hau egitea, eta saltoki txikiei kalteak eragingo dizkiola; generoaren ikuspegitik eragingo duen inpaktua ere kontuan izan behar dela, bai eta merkataritza ekipamenduei buruzko Lurralde Plan Sektorialean arautzen dutenarekin.

Berretsi egin du Amaia Almirallek adierazitakoa, hau da, bilera hau Udal Planeamenduko Aholku Kontseiluaren Araudiko 5. artikuluan araututakoan epean egin ez izana.



Horrenbestez, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketari buruzko espediente hau ez onartzeko aukera proposatu du.

Izaskun Aseguinolazak esan du ez dela kontuan hartu behar bakarrik denon interesa, baizik eta hiri guztiko merkataritza jardueraren oreka ere hartu behar dela kontuan.

Iñaki Gurrutxagak hartu du hitza, eta esan du Garberako Hirigintza Hitzarmenarekin zerikusia duten epaiek berretsi egiten dutela proiektu honek ez duela interes orokorra urratzen.

Enrique Ramosek adierazi du proiektu hau nahikoa eztabaidatu dela bi Aholku Kontseilutan eta bi Herritarren Parte Hartzerako ekitalditan. Eta ezin dela merkataritza gunearen kokapena periferiatzat hartu, Intxaurren auzotik, besteak beste, oso gertu dagoelako eta udalaren autobus zerbitzua ere badelako.

Gero, espediente honekin zerikusia duen txostena bozkatu da; hona hemen emaitza:

- Aldeko botoak: 9 (Ramos Gurpegui, Murguiondo, Ibabe, Gurrutxaga, Sánchez, Aseguinolaza, Cuevas eta Farias).
- Aurkako botoak: 4 (Almiral, Loïc Alejandro, Azpillaga eta Mendiburu).

Horrenbestez, eta Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 109. artikuluan xedatutakoarekin bat etorruta, Batzordeak adierazi du baduela Gabera IN.09 hirigintza esparruari buruzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketaren espedientearen berri.

## **2. Eskariak eta galderak.**

Loïc Alejandrok adierazi du Udalaren webgunean Planeamenduko Aholku Kontseiluaren akta bakarra argitaratu dela, eta eguneratu dadin eskatu du.

Amaia Almiralkek proposatu du Aholku Kontseiluan aztertzea “Etxebizitza turistikorako hirigintza erabilera eta ohiko etxebizitzako gelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen ordenantza”, nahiz eta amaitu izana alegazioak egiteko epea.



▶ Hirigintza Sostengagarria  
Urbanismo Sostenible

Enrique Ramosek esan du ez dagoela inolako eragozpenik bilera bat egin eta aurkeztutako alegazioak aztertzeko.

Eta beste aztergairik ez denez, 17:15ean eman dute amaitutzat bilera.

BATZORDEBURUA,

Sin.: Enrique Ramos Vispo

IDAZKARIA,

Sin.: Carlos Azcoaga Mendizabal

